

Beasain

egunez egun

BEASAINGO UDAL ALDIZKARIA

2011ko abuztua 32



Beasaingo Udala



Koldo Agirre, alkatea

**“Beasaindarrei hitza
emanez gobernatuko
dugu”**



Argazkia: Asier Zaldúa

2011ko ekainak 11 BEASAINGO UDALETXE ARETOAN...



Argazkia: Juanxo Unanue



Argazkia: Asier Zaldúa



Argazkia: Eskeine Legorburu



Argazkia: Juanxo Unanue

Beasaingo Udalbatza berria



Argazkia: Eskeine Legorburu

2011 - 2015 legealdiko ordezkariak



- 1.- Koldo Agirre (Alkatea)
- 2.- M^a Mar Zelaia
- 3.- Aitor Lauburu
- 4.- Asier Sarriegi
- 5.- Zezilia Herrador
- 6.- Iñaki Saldaña



- 7.- Aitor Aldasoro
- 8.- Malu Vallés
- 9.- Leire Artola
- 10.- Iñigo Arrese
- 11.- Enkarni Arrite
- 12.- Eva del Río



- 13.- Fernando Boada
- 14.- Ana Crespo



- 15.- Unai Baztarrika



- 16.- Josi Insausti



- 17.- Julio Herreros

"Beasaindarrek argi esan"

Koldo Agirre, Beasaingo alkatea

"Quiero aprovechar esta oportunidad para hacer bien las cosas y aprender, dando lo mejor de mí a las y los beasaindarras". Así inicia la entrevista el alcalde de Beasain, Koldo Agirre. Ha emprendido esta nueva etapa de su vida con mucha ilusión y ganas. En su opinión, se darán mejores resultados si se trabaja entre todos en la tarea de mejorar Beasain. Partiendo de esa premisa de trabajo en conjunto, tanto él como sus compañeros consideran la participación eje fundamental de la legislatura 2011-2015. En la siguiente entrevista Agirre, además de dar a conocer las principales líneas de trabajo de la nueva corporación, confiesa y acerca a los beasaindarras sus ilusiones y aficiones.

Maiatzaren 22az geroztik hainbat aste pasa dira jada. Alkatetza karguari neurria hartzea ez da lan makala izango...

Egia esateko ez da erraza, baina, uste baina hobeto daramat. Azken finean, eguneroko bizitza erabat aldatu zait, baina, hoberako izango delakoan nago. Esperientzia ahaztezin bat izango da, bizitzan behin izango dudana eta gauzak ongi egin eta ikasteko aprobetxatu nahi dut, herriari nire onena emanaz.

Aginte makila eskuratzean... Nola bizi izan zenuen bilkura aretoan bizitako une hori?

Une ahaztezinak dira. Momentuan ez da agian gehiegi disfrutatzen, espero ez genituen uneak izan zirelako eta ezin nuelako momentuko egoera asimilatu. Denbora pasa ahala, momento hura gehiago disfrutatzen delakoan nago. Hala ere, herritarrek emandako berotasunarekin oso eskertuta nago, jendea emozionaturik, negarrez, animoak ematen... ikustea oso hunkigarria da.



dute aldaketa nahi dutela"

Herrian krispazio edo konfrontazio girorik sumatu duzue?

Momentuz ez dut horrelako ezer berezirik bizi. Ez dut erreazio txarrik ikusi niganako, eta ea denbora askoan horrela den. Hala ere, badakit denei ezin naizela ongi erori.

Orain lana egitea tokatzen da. Ilusioa eta gogoa ez zaizue faltako garai berri honi ekiteko...

Bai, bai. Ilusioa eta gogoa ez da faltako. Garai berriak dira gure taldeko askorentzako, baina, lehendik ibilitakoen esperientziarekin eta berrion indar eta gogoarekin aurrera ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara.

Herritarrek izango al dute, modu batera edo bestera, euren lekua Beasaingo Udalean?

Gure helburua hori da. Herria denon artean hobetu behar dugula uste dugu, herria denon artean eraikiz. Horretarako, parte-hartzea bultzatuko duen batzorde berri bat sortu dugu eta plenoak ere arratsaldez jarri ditugu. Batzordeak ere, bertaratu behar den jendearen araberako ordutegia izango dute.

Eta herriko eragileek zein alor ezberdinetako taldeek?

Herriko eragileak ere guretzako oso garrantzitsuak dira, azkenean herriari bizitasuna ematen dietenak ere eurak baitira neurri handi batean. Eurekin bildu eta euren interesak zeintzuk diren ikusi behar dugu, lehen esan bezala, herria denon artean eraiki behar baitugu.

Politikan sartu berri zara eta dedikazio osoa emango diozu alkatetza postuari. Erronka galanta izango da pertsonalki, ez?

Bai, dudarik gabe. Norbere herriko alkate herritarrek izendatzea gauza polita da. Orain, guregan jarri duten konfidantza hori herritarrei itzultzea guri dagokigu. Ahal dugun egokien egiten saiatuko garela dudarik ez izan dezatela herritarrek!

Batzordeen inguruan, zeintzuk dira berrikuntzak aurtengo legegaldiari begira?

Batzorde berriei dagokienez, partehartzea, berdintasuna, migrazioa eta hezkuntza arloez osaturiko batzorde berri bat egongo da. Bestalde, euskara eta kultura batera joango dira, aurreko legealdian ez bezala. Gainontzean, ez dago aldaketarik ia-ia.

Gastu politikoa murriztu nahi izan duzue, hasiera-hasieratik.

Bai, alkatearen soldata, ia heren batean jaitsi dugu eta gainontzeko politikoen soldatetan ere murrizketak egin nahi ditugu (hau oraindik zehazteko dago, aurrerago zehaztuko bagenu esango nizuke).

Gutxiengoan egotean, adostasun zehatzak bilatzea funtsezkoa iruditzen zaizu?

Bai, noski. Adostasun puntualak bilatu beharko ditugu gure planak aurrera atera ahal izateko. Hala ere, adostasun puntual hauetatik abiatuta, adostasun orokorrak ere bilatzen ahaleginduko gara, azken batean denok herriaren alde borroka egin behar baitugu. Dagoeneko, Aralarrekin sinatu dugu akordio bat.

Bildu koalizioa sentsibilizazio ezberdineko pertsonen indarren bateratzearen emaitza da. Zaila izango da zure ustez metaketa hori udalean praktikan jartzea?

Ez da erraza izango. Hala ere, aurretik esan dudana bezala, denok herriaren eta herritarren hobekuntza nahi dugu, beraz, denok saiatu beharko gara metaketa hori lortzen.

Zeintzuk dira finkatu dituzuen ardatzak datozen lau urteei begira?

Lehenik eta behin, elkarriketa honetan behin baino gehiagotan aipatu dudana parte-hartzea. Ondoren, Udala, herritarrengana gerturatu nahi dugu. Eta nola ez, aparkalekuei eta etxebizitzaren arazoari ere irtenbidea ematen ahalegindu nahi dugu.

Euskarari eta abertzaletasunari pisu handiagoa ematea giltzarri da normalizazioa lortzeko eta herriak jasandako gatazkak gainditzeko?

Euskararen erabilera bultzatu nahi dugu, erabilera handitu eta gure lanerako tresna bezala erabiltzea da gure helburua. Gure nahia da Beasain euskaldun eta abertzale ikustea.

Krisi garaian murgilduta gaude oraindik, eta herritarrek hura guztiz ezabatzeko irtenbideak eskatzen dituzte. Akzio-planik baduzue gai horren bueltan?

Krisian erabat murgilduta gaude eta oraindik hemendik irtetea zerbait kostatuko zaigula uste dugu. Gure asmoa behar gehien dutenei laguntza ematea da, egoera zail hau ahalik eta eramangarrien izateko asmoarekin.

“ Son nuevos tiempos para muchos de nosotros. Pero, con el apoyo de los experimentados y las fuerzas y ganas de los nuevos, intentaremos hacer las cosas lo mejor posible ”

“ Datozen urteotan Udala herritarrengana gerturatu nahi dugu. Halaber, besteak beste, aparkalekuei eta etxebizitzaren arazoari ere irtenbidea ematen ahaleginduko gara ”

Koldo Agirre, gertutik

Zerk bultzatu zintuen politikan sartzera?

Beti gustatu izan zait politika mundua. Momentu egokia dela uste izan dut politikan sartzeko eta herriaren alde egiteko.

Nola hartu zuten etxekoek alkatetza eskuratzearen berria?

Etxekoek, nik bezala, ezustean. Hala ere, pozik esango nuke, ilusioz.

Beasaingo zein txoko duzu gustuko?

Nire etxe ingurua. Uda partean nire etxeko balkoian gustura egoten naiz, lasai-lasai herria ikusiz afaltzen, eguneko momentu hoberenetarikoa bat izaten da.

Nola ikusten duzu etorkizuneko Beasain?

Euskalduna, parte hartzailea, etxebizitza arazorik gabekoa... Hau da ikus-tea nahiko nukeena.

Afizio berezirik ba al duzu?

Kirola. Nire lasaitzeko modua da.

Irakurri duzun azken liburua?

Egunkaria egunero irakurtzen dut, baina liburuak irakurtzea gehiago kostatzen zait, *Bilbao-New York-Bilbao* ari naiz irakurtzen.

Musika gustatzen zaizu? Bereziki maitea duzun estilo zehatzik?

Denetik entzuten dut, normalean kotxean irratia jartzen dut. Euskal musikaren oso zalea naiz.

Uda honetan ba al da oporrik alkatearentzat?

Espero dut nahiz eta asko ez izan, astetxoren bat libre izatea, pilak kargatu eta ikasturte berriari indar-berrituz ekiteko.

“ Adostasun puntualak bilatu beharko ditugu gure planak aurrera atera ahal izateko. Hala ere, adostasun puntual hauetatik abiatuta, adostasun orokorrak ere bilatzen ahaleginduko gara, azken finean denok herriaren alde borroka egin behar baitugu. Dagoeneko, Aralar-ekin sinatu dugu akordio bat ”

“ En cuanto a las comisiones, una de ellas estará conformada por los ámbitos de participación, igualdad, migración y educación. Además, a diferencia de la anterior legislatura, euskera y cultura irán juntos. En el resto, no ha habido apenas cambios ”

“ Beti gustatu izan zait politika mundua. Momentu egokia dela uste izan dut politikan sartzeko eta herriaren alde egiteko ”





Beasaingo Udal berria osatu da

Maiatzaren 22ko udal hauteskundeen ondorioz Beasainen emandako aldaketa joan den uztailaren 7an mamitu zen udaletxean egin zen ez-ohiko batzarrean. Bertan, Beasaingo Udal Antolaketaren egitura taxutzeko funtsezkoak diren puntuak aztertu eta bozkatu ziren.



Zaila da askotan politikarien eta instituzio publikoen ahotan entzuten diren terminologiak ulertzea. Nola antolatzen da Udal bat hauteskunde batzuen ostean? Zein dira eztabaidatu beharreko gaiak? Norainoko garrantzia du ez-ohiko batzar batean bozkatzen denak Beasain eta beasaindarrentzat datozen lau urteei begira?

Termino teknikoak ekidinez, horra joan den uztailaren 7ko ez-ohiko batzarrean eztabaidatu, adostu eta bozkatu ziren gai garrantzitsuenak: **Osoko Bilkuren maiztasuna; batzorde txosten-gileen eraketa; erakunde kolegiatueterako udal**

ordezkariak; talde politikoen asignazio ekonomikoa eta alkatearen soldata; eta alkatezaren ebazpenak hainbat gairen bueltan (Alkateordeen eta Gobernu Batzordearen kideen izendapena, Gobernu Batzordearen eginkizunak edota batzorde informatzaileen lehendakarien izendapena), besteak beste.

Ondorengo orrian pleno hartan erabakita geratu ziren puntuak zehazten dizkizuegu, **Beasaingo udal antolaketaren egitura herritarrei gardentasun osoz helarazteko asmoz:**



Beasaingo udal antolaketa herritarrei zabalduz

Orri hauen bitartez, Beasaingo Udalak herritar guztien eskura jarri nahi du datozen lau urteetarako Udalak izango duen behin betiko egitura. Hona hemen 2011-2015 legealdian ardatz izango diren hainbat gai:

→ Zeintzuk dira alkateordeak eta Gobernu Batzordeko kideak?



1. Mª Mar Zelaia Gonzalez (Bildu)



2. Unai Baztarrika Otegi (Aralar)



3. Aitor Aldasoro Iturbe (EAJ/PNV)



4. Fernando Boada Gonzalez (PSE/EE)



5. Josi Insausti Mujika (H1!)



→ Zein izango da udal ordezkaritza beste organo eta erakundeetan?

Udal Patronatuen lehendakaritza, ondorengo zinegotziei ordezkatzuko zaizkie:



Udal Euskaltegia:
Aitor Larburu Izaguirre (Bildu)



Loinatz Musika Eskola:
Unai Baztarrika Otegi (Aralar)



Kirolaren Udal Erakundea:
Asier Sarriegui Zumarraga (Bildu)



→ Plenoko bileren maiztasuna

Udalbatza Osoak egin beharreko ohiko bilerak udaletxeko batzar aretoan egingo dira, hil bakoitzaren lehenengo ostegunean, arratsaldeko 19:00etan lehenengo deialdian eta bi egun geroago ordu berean bigarren deialdian. Gutxienez bi hilabete behin egingo da.

→ Zenbatekoa izango da alkatearen soldata?

Alkatearen ordain-saria hileko gordina 4.031,21€-koa izango da eta urteko gordina 56.436,94€koa



Batzordeburuen konpromisoa, lau hitzetan

Udal berriaren eraketarekin, batzorde bakoitzaren betebeharrak zehaztu eta helburuak finkatu ditu Beasaingo Udalak. Guztira 11 batzorde informatzaile izango dira 2011-2015 legealdirako. Batzordeburuek euren konpromisoa eta xedeak eza-gutarazi nahi dizkiete beasaindarrei ondorengo adierazpenen bitartez:



Koldo Agirre
Alkatea

OGASUNA ETA ONDAREA

“ Erabiltzen den dirua, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko erabiliko dugu. ”

HIRIGINTZA

“ Etxebizitzaren eta aparkalekuen arazoari erantzuna ematen saiatuko gara. ”

ARANA KALEKO BATZORDEA

“ Martxan dagoen proiektua aurrera ahalik eta egokien eramango dugu. ”



Unai Baztarrika
Aralar

KULTURA ETA EUSKARA

“ Herria euskaldundu eta euskararen erabilera bultzatuko dugu. ”

IGARTZAKO BATZORDEA

“ Amaitzen ari den proiektu bat da. Obrak amaitu ostean bere erabilera sustatzen ahaleginduko gara. ”



Mari Mar Zelaia
Bildu

TURISMOA ETA MERKATARITZA

“ Merkataritzak eta merkatariek bultzada indartsu bat behar dute. Batzordetik hedapen turistikoari eta merkataritari euskarri mezu bat bidali nahi diegu, Beasain denontzat bisitatzeko tokia izan dadin. ”

ZERBITZU, LANDA INGURUNEA ETA INGURUMENA

“ Apostamos por la mejora de los servicios desde la participación de los ciudadanos para plantear las necesidades como para la búsqueda de soluciones, uniendo fuerzas, para que Beasain sea un lugar perfecto para vivir. ”



Iñaki Saldaña
Bildu

GIZARTE ONGIZATEA

“ Ayudar al que lo necesita no solo es parte del deber, sino de la felicidad. ”



Zezilia Herrador
Bildu

PARTE HARTZEA, BERDINTASUNA, MIGRAZIOA ETA HEZKUNTZA

“ Herritarren hitzak eta parte-hartzeak markatuko dute datozen urteetako norabidea. ”



Asier Sarriegi
Bildu

GAZTERIA ETA KIROLA

“ Gazteak gugana gerturatzeko ahaleginduko gara, euren euren garrantzia emanaz ”



Aitor Larburu
Bildu

UDAL ANTOLAKUNTZA

“ Ahalik eta efikazia eta eraginkortasun gehiena lortzen saiatuko gara, herritarrari zerbitzu ezinhobea eskaintzeko ”

Donostiako Musika Hamabostaldia, gurean

Marina Cusi mezzosopranoak eta Borja Mariño pianojoleak kontzertua eskainiko dute abuztuaren 12an, arratsaldeko 20:00etan, Beasaingo Igartza Jauregian.

Donostiako Musika Hamabostaldiaren 72. edizioak Igartza Jauregia aukeratu du egitarauaren emanaldi bat bertan eskaintzeko. "Ondoen kontserbatutako gipuzkoar arkitekturako bitxietako bat", diote antolatzaileek. Kontzertura joaten diren besaindar zein bisitariak Marina Rodríguez Cusi mezzosoprano balentziarraren ahotsaz gozatzeko aukera izango dute. Borja Mariñoren pianoa lagun duela, Cusi Guridi eta bere

garaikideak oinarri dituen erreperatorioa eskainiko du. Haien artean nabaria da Xabier Montsalvatge edota Eduard Toldrá bezalako sortzaile katalanen presentzia.

Eguna: Abuztuak 12, ostirala.
Ordua: Arratsaldeko 20.00etan.
Sarrerak: Dolarea Hotelean daude eskugarai, baita Musika Hamabostaldiaren bulegoetan ere (Kursaal zentroan).
Prezioa: 15 euro.



26 > LARUNBATA

08:00etan.- Euskal Herriko Emakumezkoen Futbol Koparen finalaurrekoa Loinatz Futbol Zelaian.

IRAILEAN

3 > LARUNBATA

10:30ean.- XXIV. Antzizar Igeriketa Sari Herrikoia kiroldegian.

4 > IGANDEA

08:00etan.- Mendi irteera: Zumarraga-Beasain. **Antolatzailea:** Aizkorri mendizale elkarte.

Beasainmendiko jaiak

11:00etan.- Herri meza.
11:30ean.- Herri krosa.
11:45ean.- Aizkorri Mendizale Elkartekoei ongi etorria.
12:30ean.- Herri Kirolak eta bertsolariak.
13:30ean.- Omenaldia.
14:00etan.- Bazkari herrikoia.
16:30etik aurrera: Haur jolasak, bertsolariak, erromeria.

8 > OSTEGUNA

18:00etan.- Meza eta Erromeria, txistulariek lagunduta. Loinazko Ama Birjinaren ermitan.

9, 10, 11 > OSTIRALA, LARUNBATA, IGANDEA

Igartza-loinaz auzoko jaiak (ikus eskuko programa)

10 > LARUNBATA

12:00etan.- Beasaingo dantzarien irteera San Martin Plazatik.
12:30ean.- Beasaingo dantzariak Igartzan.
13:30ean.- Sagardo eta odolki dastatzea Dolarean.
18:00etan.- Erromeria AIKO taldearekin.

12 > ASTELEHENA

Adineko pertsonen egunaren ospakizunen barruan jokoak: toka, igela, musa, puntua, tutea eta seiko jokoak. **Izen ematea:** irailaren 5etik 8ra arte jubilatuen etxean arratsaldez. Bakarrik Beasainen bizi eta 65 urte baino gehiagoko pertsonen parte hartu ahal izango dute.

14 > ASTEAZKENA

19:00etan.- Igartza Beka. 14. sari banaketa. **Igartzako jauregia.**

17 > LARUNBATA

16:30ean eta 18:30ean.- Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia. Antzizar kiroldegian. **Antolatzailea:** Chernobileko lagunak.
15:00etan.- Txirrindularitza proba: XXX Beasain proba.

18 > IGANDEA

Adineko pertsonen eguna Antzizar kiroldegian.
08:00etan.- Mendi irteera: Besaide. **Antolatzailea:** Aizkorri Mendizale Elkartea.